ULTZAMAKO UDALA

UDAL INFORMAZIOA
INFORMACIÓN MUNICIPAL

119. ALEA
2017 URRIA
Ultzamako Udalak argitaratua

## BALORAZIO PONENTZIA

Katastroaren balioespen berria onartu da. Duela 13 urte ez zela hau egiten, eta legearen arabera beharrezkoa denean edo gutxienez 5 urtetik behin egin beharko litzateke. Balioespen honek oro har, etxebizitza, hiri eta landa zoruen balioespenaren % 36ko igoera ekarri du. Aurrekoa ikusirik, orain arte aplikatzen zen katastro balioaren % 0,21eko koefizientea jaistea aztertzen ari da Udala.

## PONENCIA DE VALORACIÓN

Se ha aprobado la nueva valoración del catastro. No se había realizado desde hace 13 años, según la ley habría que hacerlo cuando es necesario o cómo mínimo cada 5 años. Esta valoración supone en general un aumento del 36% más o menos en las valoraciones de vivienda, suelo urbano, y rústico. Consecuencia de lo anterior, el Ayuntamiento está estudiando bajar el coeficiente del 0,21% del valor catastral que se aplicaba hasta ahora.

## BERDINTASUN PLANA

Joan den irailaren 6an, Ultzamaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak onartu zuen, aho batez, eskualdeko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako bigarren Plana.

Plana Mankomunitatearen gaiarekiko konpromezuaren seinalea da.

Proiektu honetan, bai aurrekoaren ebaluazioan, honen diagnostikoan eta baita planaren sorkuntzan ere 40 pertsonak parte hartu dute (eskualdeko ordezkari politikoak, teknikoak eta gizarte eragile garrantzitsuenak).

Dokumentu honen helburua datozen sei urteetan eskualdeko genero berdintasunaren inguruko udal politikak zehazteko eta definitzeko oinarrizko dokumentua izatea da, azken finean, zonaldeko emakumeen bizi kalitatea hobetzeko.

Planak lau arlotan esku hartzea ezartzen du: toki gobernamendua eta genero-zeharkakotasuna; emakumeen aurkako indarkeria; zaintza, erantzukidetasuna eta eginkizunak bateratzea; emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoa eta balioen aldaketa.



## PLAN DE IGUALDAD

El pasado 6 de septiembre, la Mancomunidad de los Servicios Sociales de Ultzamaldea aceptó, por unanimidad, el segundo Plan para la Igualdad de las Mujeres y de los Hombres de la zona.

El plan, es la señal del compromiso de la Mancomunidad con el tema.

En este proyecto, tanto en la valoración del plan anterior y en el diagnostico de este e incluso en la creación del plan también, han participado 40 personas (representantes políticos, técnicos y los principales agentes sociales de la zona).

El objetivo de este documento es ser el documento básico para definir y concretar las políticas municipales sobre la igualdad de genero de la zona, al final, para mejorar la calidad de vida de las mujeres de la zona.

El plan propone tomar parte en cuatro campos: gobernanza local y transversalidad de género; violencia contra las mujeres; cuidado, corresponsabilidad y conciliación; empoderamiento de las mujeres, participación sociopolítica y cambio de valores.

## ORDAINAGIRIEN KOBRANTZA

Diru-bilketaren gaineko Erregelamenduari jarraikiz, aditzera ematen da Ultzamako Udalak honako ordainagiri hauek kobratzeari ekin behar diola:

- **Udalaren baskularen eta epaitzen 2017ko tasen errolda**; borondatezko ordainketarako epea 2017ko urriaren 23tik, azaroaren 24ra. Helbideratutako ordainagiriak 2017ko azaroaren 24an kargatuko dira kontuetan.

## COBRO DE RECIBOS

*De conformidad con el Reglamento de Recaudación se hace público que el Ayuntamiento de Ultzama va a realizar el cobro de los siguientes recibos:*

- ***Rolde de la tasa por báscula municipal y lotes de leña del 2017****; periodo de pago voluntario del 23 de octubre, al 24 de noviembre de 2017. Los recibos domiciliados se cargarán en cuenta el día 24 de noviembre de 2017.*

# 2017ko ABUZTUAREN 3ko OHIKO BILKURAREN LABURPENA

**1 Aurreko bilkurako akta irakurri eta onestea.**

2017/07/04ko akta onetsi da honako zuzenketekin:

Martinez Urionabarrenechea alkate andereak esan du “Alkatetzaren informazioei” dagokien puntuari buruz, abeltzainekin egin zen bileraren informazioa ematen duenean eta deialdia nola egin zen eta nor gonbidatu zen adierazten duenean, zehazki esan zuena dela “mundu guztiak bilera hau egin behar zela bazekiela eta AU Udal taldeko zinegotzia izateaz gain abeltzain ere baden Oyarzun zinegotziaren komentarioaren aurrean, bera ere bilerara deitu zuela beste abeltzain guztiak bezala.

**2 EHIZARI buruz bidezko erabakiak hartzea: Ultzamako NA-10.206 ehiza barrutia berritzea, Ehiza Antolatzeko Plana onestea, 2017-2018 Urteko Kudeaketa Plana eta araudia onestea, eta hartu beharreko bestelako erabakiak.**

Ultzamako EH Bildu Udal taldeko Picabea zinegotziak gaia azaldu die bertaratutakoei: aurten ehiza barrutia berritzea egokitzen zitzaigun Ehizaren Foru Legeak markatzen duen epea bete da, eta horren ondorioz barrutiaren onespenaren ondoren Ehiza Antolatzeko Plan berria (EAP) ere onartu behar da. Hau guztiaren dokumentazioa prestatu aurretik, ehiza barrutia Ultzamako ehiztari elkarte batek kudeatzeko saiakera egin zen eta hainbat bilera egin ziren zentzu honetan baina azkenik ehiztariek ez zuten nahi izan, hori dela eta orain arteko formula berdinarekin jarraitzen dugu: udala da ehiza barrutia kudeatuko duena, urtero ehiza arauak onartuko dituena (batzordearekin bilera-akordioa egin ondoren), txartelak kobratuko dituena, eta abar. Barruti berriari buruz, Ingurumen departamentutik informatu dute berehala emango dutela onespena. Behin hau emanda orain onartu behar dugun Ehiza Antolatzeko Planaren proiektua aztertu ahal izango dute. Hau guztiarekin, eta aipaturiko EAP hori idatzi duen teknikariak aurreratu digunez, normalena konponketa eskakizunen bat edo zuzenketaren bat eskatzea da; hori dela eta segur aski onespen hau atzeratuko egingo da. Ezin daiteke ehiza-sasoia hasi departamentuak Ehiza Antolatzeko Plana onartu arte, azkar onartzen badute “debekualdi erdian” ehizatu ahalko da –abuztuaren 15etik aurrera-, baina ez da oso probablea hau gertatzea oporsasoian baikaude, beraz sasoia ahal denean irekiko da. Aurtengo berritasun gisa, ehiza modalitate guztietarako txartel bakarra egongo dela esan behar da, eta hauen prezioa ezberdina izango da bi ehiztari moten arabera (A eta B).

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Herranz zinegotziak hartu du hitza eta ehiza mota guztietarako prezio bakarra duen txartel bakar bat egotearen inguruan eztabaidatu du. Aldi berean, Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak aipatu du bere taldetik abstenitu egin behar direla, ez zaielako EAP dokumentua helarazi eta hori dela eta ezin izan baitute aztertu, ez dituzte ehiztariak kaltetu nahi, baina ezin dugu onartu aurkeztu ez zaigun eta ezagutzen ez dugun Ehiza Antolatzeko Plan bat. Hori guztia dela eta, behin betiko testua dagoenean beraiei helaraztea eskatu dute.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez

# *RESUMEN DE LA SESIÓN ORDINARIA DEL 3 DE AGOSTO DE 2017*

***1 Lectura y aprobación de las Actas de las sesiones anteriores.***

*Se aprueba el acta del pleno del 04/07/17, con las siguientes correcciones:*

*Por parte de la Alcaldesa, Martínez Urionabarrenechea, en lo que se refiere al punto “Informaciones de Alcaldía”, cuando informa sobre la reunión con los ganaderos y cómo se convocó a la misma y a quienes, que lo dijo exactamente es que “que todo el mundo era conocedor de la existencia de esta reunión y que ante el comentario del concejal del Grupo Municipal A.U. Oyarzun, que también es ganadero, le dijo a éste que también fue convocado a dicha reunión, como un ganadero más”.*

***2 Acuerdo que procedan en materia de CAZA: Renovación del Coto de Caza de Ultzama NA-10.206, aprobación del Plan de Ordenación Cinegética, aprobación del Plan de Gestión Anual 2017-2018 y de las Normas de dicha temporada, y demás acuerdos que procedan.***

*El concejal Picabea, del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama, explica el tema a los/as asistentes: Este año nos tocaba renovar el Coto de Caza por haberse cumplido el plazo que marca la LF de Caza y consecuentemente tras la aprobación del nuevo Coto hay que aprobar así mismo un nuevo Plan de Ordenación Cinegética (POC). Previamente a preparar la documentación de todo ello se intentó que fuera una sociedad de los cazadores de Ultzama la que gestionara el coto de caza, y se celebraron varias reuniones en este sentido pero finalmente los cazadores no quisieron por lo que seguimos con la misma fórmula que hasta ahora: es el Ayuntamiento el que gestionará el coto de caza, el que aprobará cada año las Normas de Caza (previa reunión-acuerdo de la Comisión), el que cobrará las tarjetas, etc. Respecto al nuevo coto, desde el Departamento de Medio Ambiente nos han informado que muy pronto darán su aprobación. Una vez esto ya podrán estudiar el proyecto de Plan de Ordenación Cinegética que ahora vamos a aprobar. Con todo y por lo que nos ha adelantado el técnico que ha redactado dicho POC, lo normal es que nos hagan algún tipo de requerimiento de subsanación o corrección, con lo que previsiblemente se retrasará esta aprobación…..Hasta que no se apruebe el POC por el Departamento no es posible iniciar la temporada de caza luego si lo aprueban rápido se podrá cazar la “media veda” –a partir del 15 de agosto– , pero no es muy probable que esto ocurra ya que estamos en temporada de vacaciones así que la temporada se abrirá en cuanto se pueda. Como novedad de este año indicar que va a haber una única tarjeta para todas las modalidades de caza, cuyo precio será diferente según las dos clases de cazadores (A y B).*

*Toma la palabra el concejal Herranz, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual cuestiona que exista una única tarjeta con un único precio para todas las modalidades de caza. Igualmente, el concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, comenta que desde su Grupo se van a abstener porque, aun cuando se da el hecho de que no se les ha proporcionado el documento del POC y por ello no lo han podido estudiar, no quieren perjudicar a los cazadores, pero lo que no es de recibo es que vayamos a aprobar un Plan de Ordenación Cinegético que no se nos ha presentado y desconocemos. Por todo ello pide que una vez se cuente con el texto definitivo se les haga llegar.*

*Resultando que no hay acuerdo unánime se somete el*

bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Abstentzioak: Erviti, Herranz, eta Oyarzun. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

2017-2018 urterako Ultzamako NA-10.206 ehiza barrutiaren Ehiza Antolatzeko Planaren kudeaketa plana onartu da, non bertan aipaturiko sasoirako ehiza arauak ezarrita dauden.

**3 Ultzamako Udalaren herrilarreen aprobetxamenduak errentan emateko adjudikazioaren prozedura. 2017-2024 aldia. 3. HERRILARREA (Larraintzarko Benta). Esleitzeko erabakia.**

Alkateak gaia azaldu du.
Aho batez erabaki da.

LEHENA- Ultzamako Udalaren herrilarreen aprobetxamendua behin behinean esleitzea, 3. Herrilarreari dagokionean, (Larraintzarko Benta), auzotar eskatzaile bakar baten alde, Pedro Miguel Ezcurra Osacar.

**4 Ultzamako Larraintzarko Ikastetxeko eraikina eta instalazioak garbitzeko laguntza teknikoa kontratatzeko bigarren espedientea. Esleitzeko erabakia.**

Alkateak gaia azaldu du eta espedientean agertzen diren dokumentuen edukia laburtu du. Zentzu honetan komentatu du kontratazio-mahaiaren baliospen eta irizpena argia izan dela eta Ortiz de Elguea batzordekide teknikoaren txostenean oinarritu dela batez ere.

Aho batez erabaki da.
Eskaintzen balorazioen azken koadroa akta osoan.

**5 Larraintzarko Benta Zentro Zibikoko garbiketa, atezaintza eta taberna zerbitzua kontratatzeko espedientea Esleitzeko erabakia.**

Alkateak gaia azaldu du.

Idazkariak komentatu du proposamen bat bakarrik aurkeztu dela, bi pertsonek osatutakoa eta, dagokion euskara proba egin ez bada ere, uste du horietako batek ez duela eskatzen den euskara maila; besteak, berriz, titulazioaren frogaagiririk aurkeztu ez badu ere, segur aski eskatzen dena baino gehiago duela. Hori dela eta, kontratazio-mahaiak, esleipenaren momentuan, baldintza gisa jarri zuen beharrezko maila ez omen duen pertsonak denbora-epe batean hartzeko konpromisoa hartu eta horretarako ikastaroetan izena eman zezan eta, era berean idatziz konpromisoa aurkeztu zezan kartelak eta iragarkiak euskaraz jarriko direla.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Herranz zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du sentitzen dutela eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituen eta lan eta zerbitzu egokia egin duen Ultzamako jendea ... eta, zerbitzuak eskertzeko aprobetxatzen dugu... esleipenetik kanpo geratu izana eta lanik gabe EH Bilduri esker. Adierazi du ez zaiela ondo iruditzen lan baldintzetan lehen baldintza gisa, zentruan jendearen arreta eskeintzen duten pertsonek, ahal dela, lehentasunez euskaraz egin behar izatea. Beraz, arrazoizkoena erabiltzaileak edo bezeroak nahi duen hizkuntzan tratatzea dela uste dute, hau inposozio bat izan gabe. Aitzakia gisa ez du balio esatea aurrekoak

*mismo a votación.*

*- Votos a favor: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, y Aranguren.*
*- Abstenciones: Erviti, Herranz, y Oyarzun. Justifican el sentido de su voto por lo dicho anteriormente.*

*Visto lo anterior la Corporación aprueba este punto.*

*Se Aprueba el Plan de Gestión Anual 2017-2018 del Plan de Ordenación Cinegética del Coto de Caza NA-10.206 de Ultzama, donde vienen establecidas las Normas para el Ejercicio de la Caza para dicha temporada.*

***3 Procedimiento de adjudicación en arriendo de los aprovechamientos de pastos comunales del Ayuntamiento de Ultzama. Años 2017-2024. PRADO COMUNAL nº3 ( Venta de Larraintzar ). Acuerdo de adjudicación.***

*La Alcaldesa explica el tema.*
*Se acuerda por unanimidad.*

*PRIMERO.- Adjudicar de manera PROVISIONAL el aprovechamiento de los pastos del Comunal del Ayuntamiento de Ultzama, en lo que respecta al PRADO COMUNAL nº3 (Venta de Larraintzar), a favor del único vecino solicitante, Pedro Miguel Ezcurra Osácar.*

***4 Segundo Expediente de Contratación de la asistencia técnica consistente en la limpieza del edificio e instalaciones del Centro Escolar "Larraintzarko Ikastetxea" de Ultzama. Acuerdo de adjudicación.***

*La Alcaldesa explica el tema, y resume el contenido de los documentos que constan en el Expediente. En este sentido comenta que la valoración y el dictamen de la Mesa de Contratación ha sido claro y que se ha basado fundamentalmente en el Informe del Vocal Técnico, Ortiz de Elguea.*

*Se acuerda por unanimidad.*
*Cuadro Final de Valoración de Ofertas en el acta completo.*

***5 Expediente de Contratación de los "Servicios de Conserjería, Limpieza y Bar del Centro Cívico Larraintzarko-Benta de Ultzama". Acuerdo de adjudicación.***

*La Alcaldesa explica el tema.*

*El Secretario comenta que tan sólo se han presentado una propuesta, formada por dos personas una de las cuales, aun a falta de realizar las pruebas pertinentes, se cree que no tiene el nivel de euskera exigido y la otra, que seguramente tiene el nivel e incluso mucho más…, no ha presentado justificante de la titulación. Por ello la Mesa de Contratación, al a hora de la adjudicación, condicionó la misma a que la persona que presumiblemente no reúne el nivel se comprometiera a adquirirlo en un plazo de tiempo y a apuntarse a los cursos pertinentes y así mismo a que se presentara un compromiso por escrito de la colocación de la cartelería y anuncios varios en idioma euskera.*

*Toma la palabra el concejal Herranz, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual manifiesta que lamentan que gente de Ultzama que cumpliendo con todos los requisitos exigidos y habiendo realizado una labor y servicio que entienden satisfactoria... y, aprovechamos para agradecerles el servicio... se hayan quedado fuera de la adjudicación y sin trabajo gracias a EH Bildu. Indica que no les parece de recibo que se establezca como primer requisito, en las condiciones laborales, que "las personas que presten servicios de atención al público del Centro tendrán que hacerlo, preferentemente, en idioma euskera". Así pues, lo razonable, entienden, que se le trate en el idioma que quiera el usuario o cliente, sin que esto sea*

ez direla aukeztu. Haiek ezarritako zerbitzua oso ondo bete zuten. Gauzak horrela, Non geratu dira EH Bilduren promesak? Azkenean, kontu berera itzulita: Ultzamako auzotarrak lanposturik gabe geratzen dira Ultzaman. Eta hau ez da hemen geratzen. Horregatik abisatu zuten Ultzamanko inongo auzotarrek ezin izango zuela bere bailarako udaletxean lan egin eta horrela izaten ari da eta honek beraien salaketa berriz berrestera eramaten ditu. Hau guztiagatik, proposamen honen beraien aurkako botoa iragarri dute.

Halaber gehitu du, gertatu dena ikusirik, pozik daude ikusirik euskara eskatzen diren postu batzuk badaudela baina ez dela jendea aurkitzen hoietarako. Zentzu honetan, kontsideratzen dute trantsizio bat egon behar dela eta eskaera hau modu gradual batean burutzea, pixkanaka pixkanaka.

Martinez Urionabarrenechea alkateak eta EH Bildu Ultzama Udal taldeko Etxeberria zinegotziak hartu dute hitza eta kontu hauei erantzun diete adieraziz lehen zentro zibikoko taberna eramaten zutenak euskaraz bazekitela eta jendeari euskaraz kasu egiten ziotela baina beste arrazoi batzuk direla medio ez dute aurkeztu nahi izan. Bere iritziaren arabera euskaldun orok bere hizkuntzan kasu egiteko eskubidea dauka eta are gehiago zerbitzu publiko bat bada eta administrazioak kontratutako pertsonak badira, eta hau da euskararen legean babesten duena.

Agrupacion Ultzamako Udal taldeko Herranz zinegotziak hartu du hitza berriz eta adierazi du ez dutela EH Bildu Ultzama udal taldearen jarrera ulertzen, non gainera kasu honetan, kontratu den pertsona batek ez baitu eskera hori betetzen. Horregatik bere desadostasuna adierazi du orain mota horretako salbuespenak egitearekin eta ez beste lanpostu batzuetan, neurtzeko makila ezberdinak daudela ondorioztatuz.

Martinez Urionabarrenechea alkate andereak erantzun dio adieraziz Ultzamako EH Bildu Udal talde gisa, egiten ari direnaren arduradunak direla.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, eta Oyarzun. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

LEHENA.- Larraintzarko Benta Zentro Zibikoko garbiketa, atezaintza eta taberna zerbitzuaren kontratua Mirari Leitza Mitxelena eta Mª Paz Ripodas Aragoni esleitzea.

**6 Oihan aprobetxamendua zuzenean besterentzeko espedientea; haizeak botatako zura: Ultzamako Udalaren herrilurreko Mortua mendiko KOPAGAIN aldean (19b, 37a eta 38a unadak) dauden 55,55 metro kubiko zur zerrategirako eta 83,27 metro koadro enbor txiki.**

Alkateak gaia azaldu du.
Aho batez erabaki da.

LEHENA.- Oihan aprobetxamenduko lote bakarra Juan Manuel Arangoa Aguirreri esleitzea.

**7 Hasiera batez onestea aurrekontuaren 2/2017 aldaketaren Espedientea. Kreditu gerakinak sartzea**

*una imposición. No les vale recurrir a la excusa de que las anteriores no se han presentado. Ellas cumplieron el servicio establecido muy satisfactoriamente. Así las cosas, ¿Dónde han quedado las promesas de Eh Bildu? Finalmente, vuelta a lo mismo: vecinos de Ultzama se quedan sin puestos de trabajo en Ultzama. Y esto no queda aquí. Por ello ya avisaron que ningún vecino de Ultzama iba a poder trabajar en el ayuntamiento de su valle y así está ocurriendo y esto les vuelve a ratificar en su denuncia. Por todo esto, anuncian su voto en contra de esta propuesta.*

*Así mismo añade que, visto lo que ha ocurrido, están contentos de ver que hay puestos en los que se pide el idioma euskera pero no se encuentra gente para ello. En este sentido consideran que deber haber una transición y llevar a cabo esta exigencia de manera gradual, poco a poco.*

*Toman la palabra la Alcaldesa, Martínez Urionabarrenechea, y la concejala Etxeberria, del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama, las cuales contestan a estas cuestiones indicando que las personas que llevaban antes el Bar del Centro Cívico sí que sabían euskera y atendían a la gente en euskera, pero no han querido presentarse por otros motivos. Según su opinión toda persona euskaldun tiene el derecho a ser atendida en su idioma, y más sobre todo si se trata de un servicio público y de personas contratadas por la Administración, y esto es lo que defiende la ley del vascuence.*

*Toma de nuevo la palabra el concejal Herranz, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual manifiesta que no entienden la postura del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama cuando además en este caso resulta que en una de las personas contratadas no se ha cumplido esta exigencia. Manifiesta por ello su disconformidad con que se hagan ahora este tipo de excepciones y no en otros puestos de trabajo, concluyendo con que existen diferentes varas de medir por su parte.*

*La Alcaldesa, Martínez Urionabarrenechea, le contesta indicando que como Grupo Municipal EH Bildu Ultzama son responsables de lo que están haciendo.*

*Resultando que no hay acuerdo unánime se somete el mismo a votación.*

*- Votos a favor: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, y Aranguren.*
*- Votos en contra: Erviti, Herranz, y Oyarzun. Justifican el sentido de su voto por lo dicho anteriormente.*

*Visto lo anterior la Corporación aprueba este punto.*

*PRIMERO.- Adjudicar la contratación de los “Servicios de Conserjería, Limpieza y Bar del Centro Cívico “Larraintzarko-Benta” de Ultzama a Mirari Leitza Mitxelena y Mª Paz Rípodas Aragón.*

***6 Expediente de Enajenación Directa del Aprovechamiento Forestal consistente en madera derribada por el viento, sito en el monte comunal Mortua, paraje de KOPAGAIN, ( rodales 19b, 37a, y 38a ), compuesto por 94 pies de HAYA, con un volumen de 55,55 metros cúbicos de madera para sierra y de 83,27 metros cuadrados de tronquillo propiedad comunal del Ayuntamiento de Ultzama.***

*La Alcaldesa explica el tema.*
*Se acuerda por unanimidad.*

*PRIMERO.- Adjudicar el aprovechamiento forestal de un LOTE UNICO a Juan Manuel Arangoa Aguirre*

***7 Aprobación Inicial del Expediente de Modificación Presupuestaria nº2/2017. Incorporación de remanentes de crédito y aprobación de créditos extraordinarios.***

**eta kreditu bereziak onestea.**

Alkateak gaia azaldu du.
Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegoztziak hartu du hitza eta honako hau adierazi du:

Lehenik eta behin, ez du partida berri baten sorrera ulertzen, udal aholkularitza juridikorako jada 6.000 euro dituen partida espezifiko bat sortua baitago. Kontu honen gainean idazkariak erantzun dio gastu ezberdinak direla, udal aholkularitza juridikoa lan edo zeregin baten urteko gastu bat dela, baina kasu honetan prozedura judizial konkretu baten udalaren defentsa dela eta Biogas Plantarekin erlazionatutako kontu zehatz batengatik dela gainera. Hori dela eta erabaki da aparteko gastu partida sortzea, honen helburua Biogas Plantaren kudeaketan sortutako gastu juridikoak ordaintzea baita, Udalaren berezko funtzionamenduaren gastuetatik independienteak edo ezberdinak diren gastu juridikoak.

Bestalde, adierazi du puntu honek aditzera ematen dietela abokatuaren minutak, aurreko osoko bilkuretan aurreratu zuten moduan, 6.000 euroak gainditu behar zituela; horregatik, lehiaketa publikoko prozeduraz egin behar da. Hori dela eta, aurrekontua eta jarraitu behar duten prozeduraren zai daude. Informazio hori izan arte ausarkeria iruditzen zaie, duten infomazio gutxiarekin, aurrekontu partida hau onartzea, gehiegizkoa edo gutxiegizkoa izan daitekeelako. Ezin dute baloratu, eta beraz bere Udal taldearen aurkako botoa iragarri du. Kontu honen gainean idazkariak informatu du kontu hau eramango duen abokatuaren kontratazioko Europar Batasunean publizitaterik ez duten prozedura negoziatua egin behar dela, kontratu publikoen 6/2006 lege foruan agertzen den moduan.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, eta Oyarzun. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak puntu hau onartu du.

**8 Soberako lurzati deklaratzea Elordi industrialdean dagoen eta katastroko 188-12 lurzatiari dagozkion 258 m2ko lurra, ondoren saltzeko balorazio ofizialaren araberako prezioan, harekin muga egiten duen lurrari eransteko (Talleres Elordi SL enpresako nabea), IGNACIO ESQUISABEL HERNANDEZ eskatzailearen jabetzakoa baita.**

Alkateak gaia azaldu du.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du bere taldetik planteamendu horrekin ados daudela baina onartzen ez dutena eta salatzen dutena da neurtzeko makila ezberdina izatea eta lursailen balioespenetan Ultzamako beste bizilagun batzuei eman zitzaien tratua, eta erreferentzia berezia egin dio Zenozko kontzejuaren aurreko espedienteari, non lurzatiak askoz kantitate handiagoan baloratu ziren.

Martinez Urionabarrenechea alkate andereak hartu du hitza eta erantzun dio balioespena kontu tekniko bat dela eta Udal arkitektoak egiten duela eta ez direla hor sartzen... eta berak ulertzen duenaren arabera lurzatiaren balioa honen erabileraren araberakoa izaten da, kasu honetan industriala izanik eta ez bizitegi-gunekoa Zenozko kasuan bezala.

*La Alcaldesa explica el tema.*

*Toma la palabra el concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual manifiesta lo siguiente:*

*En primer lugar, no entiende el hecho de la creación de una nueva partida, cuando ya existe una partida de gasto específica para el asesoramiento jurídico municipal dotada de 6.000 euros. Sobre esta cuestión el Secretario le contesta que se trata de gastos diferentes, que el asesoramiento jurídico municipal es un gasto periódico por una labor o tarea periódica pero que en este caso se trata de la defensa del Ayuntamiento en un concreto procedimiento judicial y además es por una cuestión concreta relacionada con la Planta de Biogás. Por ello se ha optado en crear una partida de gasto extraordinario cuyo objeto es sufragar los gastos jurídicos ocasionados por la gestión de la Planta de Biogás, gastos jurídicos que son independientes o distintos a los gastos del propio funcionamiento del Ayuntamiento.*

*En segundo lugar indica que este punto les da a entender que la minuta del abogado, como ya adelantaron en plenos anteriores, iba a superar los 6.000 euros, por lo cual había que hacer un procedimiento de concurso público. Por ello, están esperando el presupuesto y el procedimiento que se va a seguir. Hasta no tener esa información les parece temerario, con la nula información que tienen, aprobar esta partida presupuestaria, porque puede ser excesiva o escasa. No lo pueden valorar, por lo que anuncian el voto en contra de su Grupo Municipal. Sobre esta cuestión el Secretario informa que para la contratación del abogado que lleve el asunto se va a hacer un procedimiento negociado sin publicidad comunitaria, previsto en la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos.*

*Resultando que no hay acuerdo unánime se somete el mismo a votación.*

*- Votos a favor: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, y Aranguren.*
*- Votos en contra: Erviti, Herranz, y Oyarzun. Justifican el sentido de su voto por lo dicho anteriormente.*

*Visto lo anterior la Corporación aprueba este punto.*

***8 Declaración de Parcela Sobrante de un espacio de terreno de propiedad del Ayuntamiento de Ultzama de 258 m2, pertenecientes a la parcela de catastro nº188-12 sita en el Polígono Industrial Elordi, al objeto de su posterior venta por el precio que corresponda según su valoración oficial, para su agregación al terreno colindante (nave de la empresa Talleres Elordi SL), propiedad del solicitante D. IGNACIO ESQUISÁBEL HERNÁNDEZ.***

*La Alcaldesa explica el tema.*

*Toma la palabra el concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual manifiesta que desde su Grupo Municipal están de acuerdo con este planteamiento, pero lo que rechazan y denuncian es la doble vara de medir y el tratamiento que se le dio a otros vecinos de Ultzama en las valoraciones de terrenos, y hace especial referencia al anterior expediente relativo al Concejo de Zenotz en el que se valoraron los terrenos por una cantidad mucho mayor.*

*Toma la palabra la Alcaldesa, Martínez Urionabarrenechea, la cual le contesta que la valoración es una cuestión técnica y que la realiza el Arquitecto Municipal y en la que no entran…. y que según entiende ella el valor del suelo es algo que depende del uso del mismo siendo en este caso industrial y no residencial como era en el caso de Zenotz.*

Aho batez erabaki da.

**9 Alkatetzak uztailaren 21ean emandako 152/2017 Ebazpena berrestea, Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko ikastetxean 2017-2018 ikasturterako onartutako haurren zerrenda, eskola-egutegia eta ordutegia onesteari buruz.**

Alkateak gaia azaldu du.
Aho batez erabaki da.

LEHENA.- Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxean 2017-2018 ikasturterako eskola-egutegia eta ordutegia onartzea.
BIGARREN.- Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxean 2017-2018 ikasturterako behin behinean onartutako haurren zerrenda onartzea.

**10 Abeltzaintzako ustiategietako mindaren kudeaketa sistema, Ultzamako Biogas Plantari lorturik eta Iraizotz, Suarbe, Gorrontz-Olano, Auza eta Orokietan kokaturik dauden minda biltzeko baltsak erabiltzearen bidez. Kontzeju horiekiko hitzarmenen indarraldia luzatzeko onespena.**

Alkateak gaia azaldu du.
Era berean, alokairuaren prezioari dagokionez, hau, biltegiratutako m3 bakoitzeko eta hilabeteko 0,10 eurokoa dela argitu da.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Herranz zinegotziak hartu du hitza eta adierazi du bere taldetik beraien iritzia mantentzen dutela eta abstenitu egin behar direla abeltzainei kalte gehiago ez sortzeko. Hala ere, berriz ere errepikatu dute hau ez dela arazoendako konponbidea eta urriaren 6an adierazitako argumentu berdinak mantentzen dituzte. Halaber, ohartarazi dute ingurumen eta kudeaketa eskumena gaur egun udalari dagokiola; baltsen erabilerak ez duela inongo arazorik konpontzen; ulertzen dutela konponbidea EH Bilduk itxi zuen Biogas planta berriz konkurtsora ateratzea dela; eta, Gobernu Taldeak esaten duen bezala, oraindik kudeaketan interesatuak egon litezkeen bi enpresa daude, Bilduk planta utzi duen egoera tamalgarriaren izan arren...; eta, adierazi duten bezala, enpresa hauek aurreko kudeaketa-baldintza berdinetan kudeatzeko prest egongo lirateke. Azkenik amaitzeko aipatu du ez dutela onartuko Gobernu Taldeak “patata beroa” eta erabakia abeltzainei pasatzea, bereziki gaur egun bizi dugun egoeran.

Martinez Urionabarrenechea Alkateak hartu du hitza eta erantzun dio interesa zuten enpresak, abeltzainekin Plantaren zerbitzuen baldintzei buruz negoziatzeko prest zeudela eta hauek izan direla bere ustiategien minda Biogaz Plantara eraman nahi ez dutela esan dutenak. Azkenik eta AU Udal taldeko ordezkariak erakutsitako konparazioari buruzko aipamenengatik eranatzun dio “patata beroa” ez zegoela beroa bakarrik, “erreta” baizik.

EH Bildu Ultzama taldeko Doray zinegotziak hartu du hitza eta kontu honen inguruan gehitu du inongo abeltzainek ez duela onartu mindaren kudeaketan arazorik existitzen zenik eta planta irekitzea eskaini zaiela eta ezezkoa eman dutela.

Agupacion Ultzama udal taldeko Erviti zinegotziak hartu du hitza esanez ez dela azkeneko iritzi horrekin bat etortzen eta adierazi du Biogas Planta itxiko ez balitz ez liratekeela orain dauden arazoak egongo eta zalantzarik gabe egongo direnak....

*Se acuerda por unanimidad.*

***9 Ratificación de la Resolución de Alcaldía nº152/2017, de 21 de julio, sobre “Aprobación de la lista de niños/as admitidos/as, Calendario Escolar y Horario del Centro de Primer Ciclo de Educación Infantil de Ultzama para el curso 2017 – 2018.”***

*La Alcaldesa explica el tema.*
*Se acuerda por unanimidad*

*PRIMERO.- Aprobar el Calendario Escolar y el Horario de los Centros de Primer Ciclo de Educación Infantil de Ultzama para el curso 2017 – 2018.*
*SEGUNDO.- Aprobar la lista provisional de niños y niñas admitidos en el Centro de Primer Ciclo de Educación Infantil de Ultzama para el curso 2017 – 2018.*

***10 Sistema mancomunado de gestión del purín de las explotaciones ganaderas mediante la utilización de las balsas de almacenamiento ligadas a la Planta de Biogás de Ultzama, sitas en Iraizotz, Suarbe, Gorrontz-Olano, Auza y Orokieta. Aprobación de una prórroga de la vigencia de los convenios existentes con los citados Concejos.***

*La Alcaldesa explica el tema.*
*Igualmente, en lo que respecta al precio del alquiler, se aclara que el mismo es de 0,10 euros por cada m3 almacenado y mes.*

*Toma la palabra el concejal Herranz, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual manifiesta que desde su Grupo Municipal mantienen su postura sobre esta cuestión y que se van a abstener para no generar más perjuicios a los ganaderos. No obstante, vuelven a reiterar que esta no es la solución a los problemas y mantienen los mismos argumentos que los manifestados el día 6 de octubre. Igualmente, advierten que la competencia, tanto medioambiental como de gestión, hoy le corresponde al Ayuntamiento; que el uso de las balsas obviamente no soluciona ningún problema; que entienden que la solución es volver a sacar a concurso la Planta de Biogás que cerró EH Bildu; y, que como dice el Equipo de Gobierno, todavía hay dos empresas que estarían interesadas en la gestión, a pesar de la precarísima situación en la que dejó la planta Bildu...; y, como lo han indicado, estas empresas estarían dispuestas a gestionarlo en las mismas condiciones de gestión anteriores. Finalmente concluye diciendo que lo que no admitirán nunca es que el Equipo de Gobierno pase la “patata caliente” y la decisión a los ganaderos, máxime en la situación actual que vivimos.*

*Toma la palabra la Alcaldesa, Martínez Urionabarrenechea, la cual le contesta que las empresas interesadas estaban dispuestas a negociar con los ganaderos sobre las condiciones del servicio de la Planta y han sido éstos los que han dicho que no quieren llevar el purín de sus explotaciones a la Planta de Biogás. Finalmente y por alusiones al símil expuesto por el representante del Grupo Municipal A.U. le responde que la “patata caliente” no estaba sólo caliente sino “quemada”.*

*Toma la palabra el concejal Doray, del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama, el cual añade sobre esta cuestión la circunstancia de que ningún ganadero ha reconocido que existiera problema con la gestión del purín y que se les ha ofrecido abrir la Planta y han dicho que no.*

*Toma la palabra el concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, el cual no comparte esta última opinión y manifiesta que en caso de no haber cerrado la Planta de Biogás no habría los problemas que hay ahora y los que sin duda se van a producir….*

*A continuación surge un debate sobre esta cuestión entre ambos Grupos Municipales, los cuales mantienen posturas contrarias sobre la cuestión, y que no llega a*

Jarraian bi udal taldeen arteko eztabaida bat egon da, kontu honen inguruko iritzi kontrajarriak izanik, eta ez da inongo termino edo akordiotara iritsi.

Udalbatzako kideen artean adostasunik lortu ez dutenez bozketa egin da.

- Aldeko botoak: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, eta Aranguren.
- Aurkako botoak: Erviti, Herranz, eta Oyarzun. Botoaren zentzua justifikatu dute lehen aipatutako arrazoiengatik.

Aurrekoa ikusirik Udalbatzak gai-zerrendako puntu hau onartu du.

LEHENA.- Ultzamako Udalaren eta kontzejuen artean sinatutako hitzarmen eta akordioen iraunaldia luzatzea. Aipaturiko iraunaldia luzatuko da harik eta gaur egun organismo ofizialak (INTIA, Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza zerbitzua) lantzen ari diren ustiategi bakoitzaren behin betiko eta banan-banako hondakinak kudeatzeko plana bukatuta eta egon arte .

BIGARREN.- Halaber, Ultzamako Udalaren eta hainbat abeltzaintza ustiategiren artean ezarritako "ustiategi bakoitzari dagokion mindaren biltegiratze erabilerarako baltsen erabilera lagatzeko hitzarmenen iraunaldia LUZATZEA.

Aipaturiko luzapenaren iraunaldia 2017ko abendura artekoa izango da edo gaur egun organismo ofizialak (INTIA, Nafarroako Gobernuko Abeltzaintza zerbitzua) lantzen ari diren hondakinak kudeatzeko ustiategi bakoitzeko behin betiko eta banan-banako plana bukatu artekoa izango da

## 11 Ultzamako Udalerriaren katastroko balorazioaren txostena berrikusteko proiektua onestea eta hartu beharreko bestelako erabakiak.

Alkateak gaia azaldu du.

Honi buruz komentatu du ondasun higiezinen baterako balioa, ponentzia honen arabera, jeitsi egin dela aurrekoaren balio totala kontuan hartuta, baina lurzoru motaren arabera ezberdintasunak daudela… Horregatik, aplikatu beharreko tarifa edo ehunekoari distortsio handirik ez sortzearren (eraikin bakoitzaren balio katastralaren 0,10aren eta 0,50aren artean) urri-azaroan berraztertuko da, 2018ko ekitaldirako tasak eta zergak jartzeko orduan.

Aho batez erabaki da.

LEHENA.- Batzorde mistoarako izendapenaren ondorioetarako, Udal honen ordezkari gisa Arantxa Martinez Urionabarrenechea (Udaleko Alkatea), Martin Picabea Aguirre (Udaleko zinegotzia) eta Pedro Roman Erviti (Udaleko zinegotzia) izendatzea.

BIGARREN.- TRACASA enpresak egindako Ultzamako udalaren katastroko balorazioaren txostena berrikusteko proiektua onartzea.

Era berean komentatu da dokumentuaren kopia bat bidaliko zaiola Agrupacion Ultzama Udal taldeari eta Kontzeju bakoitzari dagozkion mugaren barruan dauden eraikinei dagokien zatia.

## 12 Alkatetzaren informazioak.

Ez dago alkatetzaren informaziorik.

## 13 Exekutiboaren kontrola: Aintzat hartzea Alkatetzaren 2017ko 136. ebazpenetik 155.era.

*ningún término o acuerdo.*

*Resultando que no hay acuerdo unánime se somete el mismo a votación.*

*- Votos a favor: Martínez Urionabarrenechea, Etxeberria, Doray, Picabea, y Aranguren.*
*- Abstenciones: Erviti, Herranz, y Oyarzun, total 3. Justifican el sentido de su voto por lo dicho anteriormente.*

*Visto lo anterior la Corporación aprueba este punto del Orden del Día.*

*PRIMERO.- Prorrogar la vigencia de los acuerdos y convenios firmados entre los Concejos y el Ayuntamiento de Ultzama.*

*La vigencia de dicha prórroga será hasta el momento en que esté finalizado el Plan de Gestión de Residuos definitivo e individualizado por explotación que en el presente momento están elaborando los organismos oficiales ( INTIA, Servicio de Ganadería del G.N. ).*

*SEGUNDO.- Prorrogar así mismo la vigencia de los "convenios de cesión del uso de las balsas para el uso de almacenamiento del purín de las respectivas explotaciones" establecidos entre el Ayuntamiento de Ultzama y varias explotaciones ganaderas.*

*La vigencia de dicha prórroga será hasta diciembre de 2017 o bien hasta el momento en que esté finalizado el Plan de Gestión de Residuos definitivo e individualizado por explotación que en el presente momento están elaborando los organismos oficiales ( INTIA, Servicio de Ganadería del G.N. ).*

## *11 Aprobación del Proyecto de Revisión de la Ponencia de Valoración de los valores catastrales del municipio de Ultzama y demás acuerdos que procedan.*

*La Alcaldesa explica el tema.*

*A este respecto, comenta que el valor conjunto de los bienes inmuebles, según esta nueva ponencia, ha bajado respecto al valor total anterior, pero se dan casos diferentes según la clase de suelo…. Por ello y en aras a no crear gran distorsión la tarifa o porcentaje a aplicar (entre el 0,10 y el 0,50 del valor catastral de cada inmueble) se revisará en octubre-noviembre, a la hora de fijar las Tasas e Impuestos para el próximo ejercicio 2018.*

*Se acuerda por unanimidad.*

*PRIMERO.- A los efectos del nombramiento de una Comisión Mixta, designar para la composición de la misma, como representantes de este Ayuntamiento a Arantxa Martínez Urionabarrenechea (Alcaldesa del Ayuntamiento), Martín Picabea Aguirre (Concejal del Ayuntamiento) y Pedro Román Erviti Garaicoechea (Concejal del Ayuntamiento).*

*SEGUNDO.- Aprobar el Proyecto de Revisión de la Ponencia de Valoración de los valores catastrales del municipio de Ultzama elaborado por la empresa TRACASA.*

*Se comenta igualmente que se enviará una copia del documento al Grupo Municipal Agrupación Ultzama y que a cada Concejo se remitirá la parte del mismo que corresponda a los inmuebles de su término respectivo.*

## *12 Informaciones de Alcaldía.*

*No se producen informaciones de Alcaldía.*

## *13 Control del Ejecutivo: Toma en cuenta de las Resoluciones de Alcaldía números 136 a la 155 del 2017.*

*El concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, en lo que respecta al contenido de la Resolución*

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak, uztailaren 6ko data duen 2017/143 ebazpen zenbakiaren edukiari dagokionez, kartel informatiboen (seinale turistikoen) ordainketari buruzkoa dena, galdetu du ea zergaitik egin den honen gastua 2017ko Gaztanberaren eguneko partidatik.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak, uztailaren 21eko data duen 2017/151 ebazpen zenbakiaren edukiari dagokionez, huts egindako diru sarreren adierazpenari buruzkoa dena, erabaki honen zergaitiaren inguruan galdetu du, eta erantzun zaio azkenik berreskuratu behar ez diren sarrerak direla egiaztatu dela eta hori dela eta hobe dela galdutzat ematea, horiek kontabilizatzeko garaian urteroko diru-zaintzako soberakinaren jaiste bat ekartzen duelako.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak, uztailaren 24ko data duen 2017/154 ebazpen zenbakiaren edukiari dagokionez, Udalak emandako diru-laguntza eta laguntzei buruzkoa dena, bere harridura eta atsekabea adierazi du "eskuko pilota" kirol eskola diru-laguntzarik gabe geratu delako; honi EH Bildu Ultzama Udal taldeko Etxeberria zinegotziak erantzun dio aurten, laguntza hauen oinarri erregulatzaileetan aldaketa bat egin zela, eta berdinasunari, parte-hartzeari, euskararen erabilerari, berrikuntzei bezalako balioei lehentasuna eman zaiela.

Halaber komentatu du proposamenak balioetsi zituen mahaian Ultzamako mankomunitateko berdintasun, kirol eta animatzaile soziokultural teknikariak egon zirela eta beraiek balioetsi zituzten eskaintzak.

Era berean, alkate andereak erantzun dio bera eta Gobernu taldea ere harritu dela eta "Esku pilota" kirol eskola laguntza honetatik kanpo geratu izanak pena eman diela, eta horregatik honen ordezkariekin geratuko dela arazoari konponbide bat aurkitzeko eta legearen barruan beste prozedura motaren bat artikulatzea laguntza ekonomikoa izateko. Amaitzeko esan du nolanahi ere gai hau kontuan hartu beharko dugula Ultzamako Udaletik laguntzak eta diru-laguntzak emateko hurrengo oinarri erregulatzaileak egiterakoan.

## 14 Eskaerak eta Galderak.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak komentatu du jakin izan duela Loiketako pago oihan aprobetxamendua esleitu zitzaion Manuel Arango Aguirre egurgileak, berau ateratzeko orduan, hainbat kalte eragin dituela markatuta zeuden zuhaitzak baino gehiago lurrera botaz, eta galdetu du ea Udalak baduen honen berri; honi EH Bildu Ultzama Udal taldeko Doray zinegotziak erantzun dio horren berri izan dutela baina kalteak ez direla hainbesterainokoak izan eta hauek aprobetxamenduaren bukaeran balioetsiko direla eta azkeneko aktan islatuta geratuko dira eta kobratuko zaizkiola.

Agrupacion Ultzama Udal taldeko Erviti zinegotziak galdetu du ea aurten mendi pista berriren bat egin behar den edo gaur egun dauden baten bat konpondu behar den; honi EH Bildu Ultzama Udal taldeko Doray zinegotziak baietz erantzun dio, Mugakosoroko mendi pista konpondu behar dela Donamariako terminoa Ultzamarekin lotzen duena eta halaber komentatu du Eltzaburuko kontzejuak denbora daramala jada konponketa hau eskatzen.

**Akta osoa irakurtzeko honako helbidera jo edo Udaleko harreran ere ikusgai:**
**www.ultzama.eus**
**Udaleko eguneroko informazioa izateko:**
**www.facebook/ultzamakoudala**

*nº 143/2017, de fecha de 6 de julio, relativa al pago de los carteles informativos (señalización turística), que por qué el coste de los mismos se ha hecho con cargo a la partida de gasto del Día de la Cuajada 2017.*

*El concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, en lo que respecta al contenido de la Resolución nº 151/2017, de fecha de 21 de julio, relativa a la declaración de ingresos fallidos, pregunta el por qué de dicha decisión, a lo que se le contesta que se trata de ingresos que finalmente se ha comprobado que no van a ser recuperados y por ello es mejor declararlos fallidos ya que a la hora de contabilizarlos suponen una disminución del Remanente de Tesorería de cada año.*

*El concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, en lo que respecta al contenido de la Resolución nº 154/2017, de fecha de 24 de julio, relativa a las subvenciones y ayudas otorgadas por el Ayuntamiento, manifiesta su extrañeza y disgusto por el hecho de que la Escuela Deportiva de "pelota a mano" se ha quedado sin subvención, a lo que la concejala Etxeberria, del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama, le responde que este año se hizo un cambio en el contenido de las Base Reguladoras de estas ayudas en el sentido de que se ha dado prioridad a valores como la igualdad, participación, uso del euskera, innovación, etc….,*

*Así mismo comenta que en el Tribunal que valoró las propuestas estuvieron presentes los/as técnicos/as de igualdad, de Deportes, y la Animadora Sociocultural de la Mancomunidad de SS.SS. de Ultzama los/as cuales valoraron las ofertas.*

*Igualmente la Alcaldesa le responde que a ella y al Grupo de Gobierno también les ha sorprendido y les ha dado pena el hecho de que la Escuela Deportiva de "pelota a mano" se hubiera quedado fuera de esta línea de ayudas, y que por ello se quedará con representantes de la misma para buscar una solución al problema y articular algún tipo de ayuda económica por otro procedimiento previsto en la Ley. Finaliza diciendo que de cualquier manera esta cuestión habrá que tenerla en cuenta a la hora de la elaboración de las siguientes Bases reguladoras para la concesión de ayudas y subvenciones desde el ayuntamiento de Ultzama.*

## *14 Ruegos y preguntas.*

*El concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, comenta que ha tenido informaciones de que el maderista al que se le adjudicó el aprovechamiento forestal de haya en Loiketa, Juan Manuel Arangoa Aguirre, a la hora de sacar el mismo, ha realizado ciertos daños derribando más árboles que los marcados, y pregunta si el Ayuntamiento tiene noticia de ello, a lo que el concejal Doray, del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama, le responde que sí que han tenido noticia de ello pero que tales daños no han sido para tanto y que los mismos se valorarán al final del aprovechamiento y quedarán reflejados en el Acta final y se le cobrarán.*

*El concejal Erviti, del Grupo Municipal Agrupación Ultzama, pregunta si este año se va a hacer alguna pista forestal nueva o si se va a arreglar alguna de las existentes, a lo que el concejal Doray, del Grupo Municipal EH Bildu Ultzama, le responde que sí, que se va a arreglar la pista forestal de Mugakosoro la cual une el término de Donamaría con Ultzama, y comenta así mismo que desde el concejo de Eltzaburu se lleva ya tiempo pidiendo este arreglo.*

***Para leer el acta en su totalidad está disponible en la recepción del Ayuntamiento o en la Web:***
***www.ultzama.eus***
***Información diaria del Ayuntamiento en:***
***www.facebook/ultzamakoudala***